



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “EUSKAL HERRIKO MUSIKA IKASTEGI GORENERAKO FUNDAZIO PRIBATUA –2001” FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Euskal Herriko Musika Ikastegi Gorenerako Fundazio Privatuen 2001eko urtealdiaren ekonomia-finantza jardueraren txostena mamitu du.

2001de la

Fundazioa 2001eko ekainaren 7an EA Eren Administrazio Orokorrak sortu zuen eta helburua goi mailako musika irakaskuntzarekin eta Euskal Herriko Musika Ikastegi Gorenarekin lotutako ekimen eta jarduerak, irabazi asmorik gabe, kudeatu, sustatu eta euskarritzea. 2001-2002 ikasturtean musikaren goi mailako irakaskuntzak emateari ekin zitzaion, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko 1/1990 Legeak (LOGSE) araututakoak, Miramar Jauregia Partzuergoak lagatako higiezin batean, kokaleku hau behin-behinekoa delarik.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak iritziaren atalean sarrera bat egiten du eta bertan esaten da, erakunde pribatu diren aldetik fundazioei ezargarria zaien arautegiaren artean ez badago ere administrazio publikoen aldetik ondasunen kontratazio, zerbitzu eta langilerian jarraitu beharreko prozedurei dagokiena, kasu honetan, gogoan izanda Administrazioak sortu, finantzatu eta kontrolpetutako entitatea dela, ezin ekidin daitezke langileria kontratatzeke berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak eta publizitate eta lehiarenak ondasun eta zerbitzuen kontrataziorako. Aurrekoaren ondorioz, printzipio hauek HKEEk derrigorrez betebeharrezkotzat jotzen ditu.

Ildo honetan beretan, fiskalizazio txostenak Irizpenen atalean kezka erakutsi du Fundazioak bezalako molde juridikoen erabilerak fondo publikoen erabilerari eskagarria zaion kontrolaren kaltea eragin dezakeelako, eta honenbestez lege aldaketak egiteko gomendatzen du, erakunde hauek berariaz Erakundearen Administrazioaren atal modura barne hartuko dituztenak.

Fiskalizazioaren xede den Fundazioaren jarduerari buruzko iritzi zehatzean, HKEEk indarreko arautegia eta aurrez aipatutako printzipioak urratu egin direla azaleratu du.



Langileriaren esparruan berrogeita bederatzi irakasle eta zuzendaritza eta administrazioko hamar langiletatik seiren kontratazioa berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde gabe gauzatu dela azaleratu da. Egoera bera gertatu da merkataritzazko erlazio bidez kontratatutako hiru irakasleekin.

Halaber, EAEz kanpo bizi diren irakasle egoiliarrei bidai gastu eta alojamendu gastuen ordainketa ordainsari modura hartu gabe egiten zaiela.

Zuzendari Kudeatzailearen eta Zuzendari Artistikoaren kontratuei dagokienez, fiskalizazio txostenean esaten da lehenengoaren kalte-ordain klausula eta bigarrenaren egitekoen bateratasuna, ez zeudela aurreikusiak Fundazioaren Patronatuak kontrataziorako finkatu zituen betekizunetan.

Ondasunen erosketa eta zerbitzuei dagokienez, fiskalizazioaren arabera, lizitazioetan izandako publizitate ezak, publizitate eta lehia printzipioak urratzea dakar.

Azpimarratu den beste alderdi bat da 2001eko urtean administrazio gastuek %20 gainditu dituztela urteko sarrerak, fundazio fondoa halakotzat hartu ezin daitekeelako; honek 404/1994 Dekretuaren 55. artikulua urratzen du, Babesletzaren eta Fundazioen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamendurako Arautegia oniritzen duena.

Azkenik, legezketasunaren atalean eskolen hasiera Zentroa ireki eta funtzionatzeko baimena jaso aurretik gertatu dela azaleratu da.

HKEEren Fundazioaren Kontuei buruzko iritzian, HKEEk ondorio informatiboetarako azpimarratu du Fundazioak izugarritzko menpetasuna duela EAEren Administrazio Orokorraren ekarpenekiko. Orobat, eraikinaren lagapena barne hartu ez izana ere aipatu da, ondorioetan eraginik ez duela eta EAEz kanpoko irakasle egoiliarren desplazamendu eta alojamendu gastuen gaineko atxikipen ezak eragiten duen arrisku fiskala. Adierazi ditugun azken bi atalak salbuetsita, Kontuei buruzko iritzia positiboa da.